



Residencias  
y estancias



Egoitzak eta  
egonaldiak



# Convocatoria de residencia Internacional

Licenza, Italia

Cierre convocatoria: 26 de mayo de 2022

||  
**Huarte**

ARTE GARAIKIDEKO ZENTROA  
CENTRO DE ARTE CONTEMPORÁNEO



Huarte Zentroak ekoizpen, sorkuntza edo ikerketa artistikorako egoitza bat eskaintzen du irailaren 5etik urriaren 9ra bitartean ***Licenzan, Italian***, Nafarroan jaio edo bizi den artista batentzat.

L 'Aquila Reale Centro d' Arte e Natura di Civitella di Licenza (<https://laquilarealelicenza.org/>) kolektibo artistikoa eta gune kultural autogestionatua da, Licenza herrian kokatua, Torrente Licenza haranean eta Pellechia mendian, Erromako probintzian, Italian. Ikerketara, esperimentaziora, trukera, ikaskuntzara, hausnarketa kritikora eta tokiko praktika eta jakintzak hedatzera bideratuta dago, artearen, komunitatearen, lurraldearen eta landatartasunaren arteko elkarriketaren bidez.

Proiektuak bailarako ekintza komunitarioa eta belaunaldien arteko partaidetza indartzen ditu, landa-komunitatearen eta mendiko biodibertsitatearen eta ekosistemaren ezagutzak, praktikak, memoria, arazoak eta erronkak eta pentsamendu kritiko globalaren eta gaur egungoaren aniztasuna batzen dituzten lankidetzak artistikoko proiektuen bitartez. Bizitzaren ulermenean, pertzepzioan eta tratamenduan oinarritzen dira, zaugarritasunaren, interdependentziaren eta ekodependentziaren bidez.

Proiektuek, beraz, lurraldearekin zerikusia duten gaiak jorratu beharko dituzte: natura, mendia, arkeologia, arkitektura, landatartasuna, espezie barneko loturak, etab. Aldi berean, beste jatorri geografiko batzuetako beste artista batzuk ere izango dira espazio horretan.

## NORI ZUZENDUA DAGO

Gai horietan oinarritutako ekoizpen-, sorkuntza- eta/edo ikerketa-prozesu bat garatzeko interesa duten edozein arlotako artistei.

Egoitza hau Nafarroan bizi diren pertsonei zuzenduta dago.

## ZER ESKAINTZEN DA

- 1500 €(zergak eta atxikipenak barne) ordainsari eta ekoizpen gisa. Erdia egoitzaren hasieran emango da, eta beste erdia memoria eta justifikazio ekonomikoa aurkeztu ondoren.
- Nafarroatik Licenzarako bidaia.
- L 'Aquila Realeko lan-espazioa, dauden baliabide tekniko eta teknologikoak barne.
- L 'Aquila Realeko taldeak proiektua garatzen laguntzea.


## DATAK

**Deialdiaren amaiera:** 2022ko maiatzaren 26a

Hautaketa deialdia itxi eta gehienez ere hilabeteko epean jakinaraziko da.

Egoitza-iraupena: 2022ko irailaren 5etik urriaren 9ra

Memoriaren aurkezpena eta gastuen justifikazioa: 2022ko azaroaren 3a





## BALORAZIO IRIZPIDEAK

- Proiektuaren kalitatea.
- Proposamenaren eta gaiaren interesa deialdiaren proposamenari eta egoitza hartzen duen guneari dagokienez.
- Proiektua egingarria izatea dauden baliabideei dagokienez.

## AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Izena emateko Huarte Zentroaren web orria bete behar da: <https://www.centrohuarte.es/>

Dokumentu bakarra erantsi behar da PDF formatuan (izena\_abizena.pdf, gehienez. 5Mb) honako hauek barne hartzen dituena:

- Proiektuaren hasierako laburpena edo ideia.
- Proiektuaren xede diren ikerketa-ildoak.
- Egoitzan garatu beharreko proposamena,
- Proiektuaren ulermena errazteko proposamenarekin lotutako aurretiazko lanen bideoa (online plataformetarako loturak sartu).
- Kronograma edo lan-egutegia.
- Parte-hartzailearen biografia edo curriculum.

**\* GARRANTZITSUA:** eskatutako dokumentazio guztia aurkezten ez duten proiektuak ez dira baloratuko.

## PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Deialdi honetara aurkezteak berekin dakar oinarri hauek eta konpromiso hauek onartzen



direla aitortzea:

- Laguntza hauek jasotzea ez da bateraezina proiektu bererako beste erakunde batzuek emandako beste laguntza batzuekin, baldin eta diruz laguntzen diren gastuak Uharte Zentroak bere gain hartzen ez baditu.
- Laguntza hauek bateraezinak dira Uharte Zentroak proiektu bererako emandako beste laguntza batzuekin.
- Egoitzak irauten duen bitartean, egoiliarak bere lanerako gunea I 'Aquila Realen ezarri beharko du.
- Proiektua dosierrean azaldutako moduan gauzatu behar da. Funtsezko aldaketarik baldin bada, l'Aquila Reale-ri jakinarazi beharko zaio.
- Egoitza-aldiaren hasieran, I 'Aquila Reale programazioan sartzen den artistaren lanaren aurkezpena egingo da. Amaitzean, han eta itzuleran erakutsiko da prozesua Uharteko zentroan.
- Aukeratutako lanak egilearen edo egileen jabetzakoak izango dira. Uharte Zentroak on line edo paperezko argitalpenen bidez erreproduzitu eta zabaldu ahal izango du programa osoa edo zati bat, betiere kasuan kasuko egiletzak aipatuta. Uharte Zentroak deialdi honetatik aurrera sortzen den dokumentazio guztia artxibatuko du.
- Proiektuak argitalpenak, web orria, bideoak eta abar argitaratzea badakar, proiektuak Uharte Zentroaren laguntza jaso duela adierazi beharko da, esaldi honekin: "Proiektu honek Uharte Zentroaren Ob Skena laguntza jaso du" eta Zentroaren logoa, Zentroa bera jakinaren gainean egon beharko du aldeaz.
- Amaitzean, proiektuaren garapena jasotzen duen memoria bat entregatu beharko da (irudiak edo bideoak barne), bai eta egindako gastuen justifikazio bat ere (ordainketen faktura eta egiaztagiriekin eta horien azalpen labur batekin).

**\* GRRANTZITSUA: bi dokumentuak adierazitako datan ez entregatzeak laguntza hori galtzea ekarriko du\***

## OINARRIEN ONARPENA

Parte hartzaileek, deialdira aurkezte hutsagatik, oinarri hauek onartzen dituzte.



Università Agraria  
di Civitella di Licenza



Calvario, 2. 31620  
Uharte Huarte | Nafarroa Navarra  
t. 948 361 457 | centrohuarte.es

Finantziatua / Financiado por

